




Ermuko "Calva" jaurtitzailleen taldea

Bitxia bezain ikusgarria den kirol honen jatorria Gaztelako ardizainei zor zaie, denborapasa gisa egiten hasi bait ziren. Kirola berez, sinple samarra da: bi kilo inguru dituen "marro" izeneko burdin zilindriko batekin jaurtitzailereangandik 15 metro-ra jarrita dagoen egurrezko pusketa bat ("Calva" deiturikoa) jotzean datza. Euskaldunongan ezagunagoa den bolo jaurtiketaren parekotasun handia du.

Kirol honen ezagutza gure herrian, Gaztela-Leon-go Kultur Elkarteari esker iritsi zaigu. Dagoeneko 11 urte dira gure herrian dagoela. Hasieran Anbren eduki zuten entrenamenduak egiteko txokoa, orain dela gutxi arte Beti-Ondon beste bat lortu duten arte.


Gaurregun, 18 lagunek osatzen dute Ermuko taldea. Bizkaian badi-ra beste "Calva" talde gehiago ere.

Guztira bederatzi talde dira, eta urtean zehar txapelketa bat antolatzen dute.

Pasa den hilean, Euskal Herriko "Calva" jaurtiketaren txapelketa izan zen Beti-Ondon: bederatzi talde Bizkaitik, bi Gipuzkoatik eta beste bi Arabatik. Banakako zein taldekako txapelketa izan zen. Amaieran, taldekako garaipena Astrabuduako "Charros" taldearentzat izan zen. Ermuko taldeak bostgarren postuan bukatu zuen. Banaka berriz, Basaurira joan zen txapela. Ermuarrei dagokionez, Jose Rubio eta Francisco Perez izan ziren ongien sailkatu ziren jokalaririk.

"Calva" deituriko joko honetarako ez omen da aparteko dohainik behar; pultsu ona eta orduak sartzea omen dira betebeharrak.

Asier Ibaibarriaga




ARRAINDEGIA
eta
ITSASKIA
DOMINGUEZ

Eibarko Merkatu Plaza
Tfnoa: 11 80 38
Tlf. partikularra: 11 77 25
Ermuko Merkatu Plaza
Tfnoa: 17 03 38
Tlf. partikularra: 17 02 84

HARATEGIA - URDAITEGIA

P. ARAMBERRI



- * Bertoko txahala * Urdai egosia
- * Idi txuleta * Etxeko txorizua
- * Berton hildakoa * Txistorra

Kantabria, 1 Tfnoa: 17 64 65

KAFETEGIA



XAGUA

Zubiaurre kalea,
23 behea



ARCOS

MASAIA TERAPEUTIKOA ETA ESTETIKA

- ☛ DRENAIA LINFATIKOA
- ☛ SAUNA
- ☛ SOLARIUM

- ☛ PRESOTERAPIA
- ☛ ELEKTROLIPOLISISA
- ☛ AURREGIKO DIFTINA

M^a LUISA RODRIGUEZ

Zeharkalea, 12 -
Entlo. - 1. atea
Tlf. (943) 17 63 81